

# HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2020



Donostia, 2020ko martxo

© Testuen egilea: Intza Alkain

© Diseinua eta maketazioa: Maddi Orcajo

© Galtzagorri Elkarte  
Zemoria kalea 25, behe  
20.013 Donostia  
galtzagorri@galtzagorri.eus  
www.galtzagorri.eus

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.  
Araba kalea, 45  
20.500 Zarautz

L.G.: D 00260-2020

# HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2020



## LIBURU BAT, MILAKA BIDAIA

Galtzagorri Elkarteak 30 urte beteko ditu aurki, eta urte hauetan guztietan egindako urrats denek ipar berbera izan dute: euskal haur eta gazte literatura ezagutzera ematea eta haurrengan nahiz gazteengan irakurtzeko zaletasuna errotzea. Xabier Etxaniz Erle adituak haur literaturaren definizioa ematerakoan, haurrei zuzendutako literatura soila izan baino, haur literaturak derrigor haurren eta liburuaren arteko bitartekaria behar duen literatura dela dio. Definizio horri jarraiki, Galtzagorrik sortutako proiektu askoren bihotza bitartekariari trebakuntza eta heziketa literarioa eskaintzea da. Trebatu kalitatezko liburuak aukeratzeko tresnak eta irizpideak izan ditzaten, eta trebatu, baita ere, eurak liburuekin lilura daitezten. Izan ere, irakasle, liburuzain, guraso edo kultur dinamizatzaileak diren bitartekariak liluratzen ez badira, transmisioa nekez gauzatuko da. Hori da, hain zuzen, *Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak* proiektuaren ardatza.

Aurtengoa Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailarekin lankidetzan, proiektu hau abiarazten duen hirugarren ekitaldia da. Galtzagorrik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzako eskolei lantegiak egiteko aukera eskaintzen dizue. Gida hau esku artean baduzue, zuen eskolak izena eman, eta Galtzagorriko adituak honezkero bertan direlako da. Eskoletako eragilerik gabe, ikastetxeen interesik gabe, proiektu honek ez luke zentzurik. Alabaina, Galtzagorrik lantegiak eskaini dituen hiru urteotan, proiektuak harrera ezin hobea izan du. Eskerrik asko!

Eskola komunitateak dira *Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak* proiektuaren jomuga. Ez dira, baina, jomuga bakarra. Tokian tokiko udal liburu-etako liburuzainak lantegietara gonbidatzen ditugu eta liburutegien nahiz eskolen arteko lanki-

detza hauspotzen saiatzen gara irakasleek, haurrek eta gazteek gida honek hartzen dituen liburuak udal liburutegian aurki ditzaten eta liburuzaina haien bitartekari izan dadin.

Irakurtzea ona dela esan ohi da, baina esaldia, sarritan, hutsala bihurtzen denez gero, Juan Carlos Alonso psikologoaren hitzak berreskuratuko ditugu hemen. Alonsok, hasteko, irakurtzea buruarekin eta bihotzarekin bidaia bat egitea dela dio: “Liburu batekin milaka ate ireki daitezke eta norberak bere bidaia egingo du”. Psikologoak haur literaturaren garrantzia haurren garapen psikopedagogikoan nabarmena dela dio, are gehiago, ezinbestekotzat jotzen du. Haurrez harago, goiko hitzok, jakina, helduontzat ere balio dute. Hala, irakurzaletasuna sustatzeko lantegi hauek irakasleentzat dira, zuentzat. Gure xedea lehenengo helduengana iristea da, gero zuek haurrengana irits zaitezten. Izan ere, haur eta gazte literaturak badu beste ezaugarri bat, helduok ere irakur dezakegu.

Esku artean duzun gidak *Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak* egitasmoaren hirugarren edizioaren jarraibideak biltzen ditu. Galtzagorrik urteak daramatza euskarazko haur eta gazte literaturan argitaratzen diren obra guztiak irakurtzen, balaratzen eta hautatzen, ondoren bere egitasmoetan erabiltzeko: *Irakurketa mintegia*, *Liburu en altxorra*, *Liburu gaztea*, *Literatur aretoak*, kasu. Egitasmo horietarako egiten diren liburu zerrendak hartu dira kontuan liburu gida honetan bildu diren izenburuak aukeratzeko. Baita, euskal haur eta gazte literaturan aditu diren Galtzagorriko hainbat kidek egindako urtez urteko Ezinbestekoak zerrendak ere. Intza Alkain dinamizatzaileak osatu eta idatzi ditu oraingoan liburu guztien aipamenak. Iazko gidan egin bezala, aurtengoan ere bitartekarietzako esku-hartze proposamenak gehitu dizkiogu aukeratu-tako obra bakoitzari haurrengana edo gazteengana jotzen duzue-nean tresna gehiago izan ditzazuen.

Guztira, Euskal Haur eta Gazte Literaturako 42 izenburu ekarri ditugu gida honetara. Besteak beste, argitaratu berri-berriak, zaharagoak direnak baina kalitate handia dutenak, obra klasikoak eta, osagarri gisa, fikzio digitalak jaso ditugu gidan, hala Galtzagorrik *Amattoren Uzta* euskal haur literaturako liburu klasikoa oinarri hartuta argitaratutako app-a nola gure mugetatik harago sortu diren beste fikzio digital batzuk. Ohi bezala, liburuak irakurlearen adin gomendatuaren arabera banatu ditugu. Egile, gai, formatu eta irakurketa maila ezberdinetarako izenburuak bildu ditugu. Oraingoan, gazte literaturari dagokionean ahalegin berezia egin dugu, eta jaso ditugun eleberriak kalitatezkoak, irakurleengandik hurbil dauden gaiak lantzen dituztenak eta irakurketa zailtasunik sortzen ez dutenak izan daitezen ahalegindu gara.

Galtzagorriko profesionalek gida honek jasotzen dituzten liburuak gurditxo batean eramango dituzte zuen eskoletara. Mahai baten bueltan jarrita, liburuak mahai gainean zabalik, Galtzagorriko adituekin liburu bakoitzari buruz solasaldian aritzeko aukera izango duzue irakurle klubetan egiten den modura. Liburuaz eta liburuak haurren edo gazteen eskuetan jartzeko estrategiei buruz mintzatu zarete. Gure adituak eskola uzten dutenean gida hau geratuko da. Onbidean, lantegia lagungarri egingo zaizue, batzuei segitzeko gogoia piztuko dizue, beste batzuei ekiteko gogoia, beste norbaiti jakin-mina.

Juan Carlos Alonsoren hitzei jarraiki, gida honetan mimo handiz jaso dugun liburu bakoitza irakurtzea, buruarekin eta bihotzarekin bidaia bat egiteko aukera bada, eta irakurle bakoitzak, izan bitartekari, gazte edo haur, bere bidaia egiten badu, zenbat bidaia egiteko aukera ez ote du zabaltzen Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak egitasmoak? Zuek nahi eta ahal beste.

0 urtetik aurrera:

AZALERAKO IPUINAK.....	8
ANIMALETRAK .....	9

2 urtetik aurrera:

BADAKIT BAKARRIK JANZTEN .....	10
INDIAR TXIKIA .....	11
KU-KU, NOR ZARA ZU? .....	12
NON DAGO TXIRLO? .....	13

4 urtetik aurrera:

BETI BEZALA, EZER EZ? .....	14
GABI ETA BERNARDAREN KOMERIAK .....	15
HITZEN IRUDITEGIA .....	16
JOEMAK ETA POLASAK .....	17
ORAIN EZ, BEÑAT .....	18
SASOIKO FRUITUAK .....	19
TITIRIMARI .....	20

6 urtetik aurrera:

ETXE HONETAN .....	21
EUSKAL HERRIETAKO IPUIN MIRESGARRIAK .....	22
FRUITU ETA BARAZKIEN INBENTARIOA .....	23
GORRI! .....	24
GURDI HANDIA .....	25
HARTZ ZAHARRAREN SEKRETUA .....	26
WINNIE POH .....	27

8 urtetik aurrera:

JAKES ETA HERIO .....	28
PUKA ETA MATEOREN OILARRA .....	29
SIBERIA TRENEKO IPUINAK .....	30
WALUK .....	31



10 urtetik aurrera:

HATZ MIRAGARRIA .....	32
ILUNEKO ARGÍ .....	33

12 urtetik aurrera:

ATÂRIA .....	34
BUYAN. HERIOTZAREN UHARTEA .....	t35
CORALINE .....	36
ERREBELDE 50 BIDER .....	37
GURE OROITZAPENAK .....	38
HASIERA BERRI BAT .....	39
HARI SINGLE BAT .....	40
LEO, SABANAKO ERREGE .....	41
MIGRANTS .....	42
SHAN ETA SHEN EDO BIDEAN IKASIA .....	43

14 urtetik aurrera:

EGUNERO HASTEN DELAKO .....	44
ERAKUSLEIHOAN .....	45
ETXEAN BARRENA .....	46
FRANCOREN BILOBARI GUTUNA .....	47
MIREN ETA ERROMANTIZISMOA .....	48
SASIESKOLA .....	49

Klis-Klasikoak APP:

MARIA GOIKOAK BATBIRULAU! + APP .....	50
TXAN FANTASMA + APP .....	52
AMATTOREN UZTA + APP .....	55



## AZALERAKO IPUINAK

Idea eta ahotsa : Saroa Bikandi

Ahotsa eta zaintza artistikoa: Maria Uriarte

Poesia ahotsa eta diseinu grafikoa:

Peru Magdalena

Zaratagilea eta aholkulari musikala:

Quico Puges

Soinu ekoizpena: Tomas F Juanes

Proiektuaren irudia: Iñaki Larrañaga


Autoekoizpena, 2019

Audio literatura

Xango-Mango, Txalo txalo txin eta Atxia Motxia ezagunak dira, besteak beste, lan honetan topatuko ditugun kantuak. Izan ere, ahozko tradizioetik eta haur literaturatik jasotako kantu, olerki, hitz-joko eta ipuin laburren bilduma bat da CD edo audio formatuan argitaratutako lan hau. Ahots gorako kontaketa dibertigarriak eta musika lagun, entzuteko, jolasteko, ukitzeko, dantzatzeko, asmatzeko, kantatzeko... materiala da. Ahozkotasunari bidea emanaz eta hitzekin, hotsekin eta ipuinekin jolastuaz, haur txikienak eta haien alboan daden nagusiak jolasean ipintzeko aitzakia polita eskaintzen duen proposamena.

Azalerakoipuinak.eus web-orrian piezen hitzak eta hitzen jatorriak topatu daitezke.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahozkotasunarekin jolasteko, ez bakarrik haur txikiei zuzendua, 0urtetik 12 uretra bitarteko haurrentzat zuzendutako olerki eta ipuin laburrak oso aproposak dira, errepikapenak, memeorria, estrukturak... barneratzeko.



## ANIMALETRAK

Idazlea: Antton Kazabon

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Denonartean, 2019

ISBN: 978-84-17940-08-9

54 orrialde

Alfabetoa

«H! Hontza! Hontza begi handi, itxuraz beti erne, beti adi. Baina orain ere lotan? Esna adi!». Animalien alfabeto dibertigarria da honakoa. Hizkiz, animaliaz eta olerki eta istorioz betetako liburua, hain zuzen ere. Hizkiz hizki, animalia izenak ezagutzen joango gara eta animalia bakoitzak ezkututzen duen istorioak ezagutuko ditugu, errimaz beteriko olerki eta ipuintxoeren bitartez.

Antton Kazabon eta Jokin Mitxelenaren lanetan ohikoa den umorea, absurdoa eta aldrebeskeria da nagusi alfabeto honetan, bai testuan, baita ilustrazioetan ere. Alfabetoa ikasteaz gain, hizkiekin, hitzekin eta istorioekin jolasean ibiltzera animatzen gaituen liburua da, liburu jostaria. Testu laburrak, errimatuak eta guztiz iradokitzaileak, fantasiaren mundura eramango gaituztenak. Ilustrazioak, trazu azkarrekoak, errebeldeak, ezinbestean barrez utziko gaituztenak. Beraz, irakurketa eta idazketan lehen urratsak ematen dabilzan haurrentzat, letrak banan-banan era dibertigarrian ezagutzeko liburu aproposa da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Abezedarioa den aldetik, hizkiak ezagutzen dabilzanekin jolas liburu bezala erabili daiteke: hizkiak animaliekin identifikatu, hizki berberaz hasten diren animalia zerrendak sortu... Baina era berean, istorio errimatuak kantatu eta animalien inguruko istorio berriak sortzera animatu daitezke.



## BADAKIT BAKARRIK JANZTEN

Idazlea: Elena Odriozola

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Denonartean, 2019

ISBN: 978-84-17940-18-8


20 orrialde

Album ilustratua

Neskatoak jantzi egin behar du. Armairu barruan kuleroak, barruko kamiseta, soinekoa eta galtzerdiak prest izango ditu, baina, nola demontre jantzen da? Orri zabalgarriak dituen album ilustratu honetan, neskatoak behin eta berriz galdetuko digu gauza bera. Egitura errepikakorra erabiliz, orrialde batean jantzi bakoitza jantzen nahastu egiten dela erakutsiko digu, baina, orrialdea zabaltzerakoan, arropa janzteko modu egokia topatuko du beti. Neskatoak irakurlearekin jolastuko du, hari mintzaten zaio, haren erantzuna jaso nahi du eta bereziki, barre eginaraziko dio. Kontrakoa badirudi ere, liburu honek ez du jantzen erakustea bilatzen, irakurle baten bila dabilen liburu bat baita. Irudia irakurtzea, gertaera aurreikustea, sekuentzia jarraitzea eta liburuarekin elkarreraginean ipintzea bilatzen da. Hau da, aurre-irakurle bat irakurtzen ipintzea.

Elena Odriozolak, bere marrazketa estilo propioari jarraituz, oraingoan ere xumetasunez, soiltasunez eta kolor bakan batzuekin, etxeko giro goxoa irudikatzea lortzen du.

**Bitartekariaren esku hartze proposamena:** Ahots goran irakurri eta hartu-emanen aritzeko. Eguneroko ohiturez aritzean, ikasiak ditugun arauekin irudimena landuz jolastu: arropekin moztarrotu, arropak gorputz atal ezberdinetan jarri (soinekoa txapela moduan erabiltzen badugu?...). Aukera polita da Tao Gomiren Bainura liburua erabiltzeko.



## INDIAR TXIKIA

Idazlea: Ricardo Alcántara

Ilustratzailea: Gustavo A. Rosenffet,  
“Gusti”

Itzultzailea: Xabier Olaso

Pamiela- Kalandrak, 2019

ISBN: 978-84-9172-126-0

14 orrialde

Album ilustratua

Juantxo txikiaren abentura berria da honakoa. Egile berberen Pirata Ausarta liburuan Juantxo ezagutu genuen, baita bere pirata abenturarako bat ere. Oraingo honetan, etxean aurkitzen duenaz baliatuz, indiar-bakero estiloko film batera garamatzala dirudi. Lumak buru ganean dituela, arku jaurtiketan, kanoan eta beste hainbat abenturatan ibiliko gara haren eskutik. Liburuak, bereziki, irudimenarekin jolastera garamatza, fikzioaren barruko fikzioa ezagutuko dugu, eta fikziotik errealitatera eta errealitatetik fikziora saltoka ibiliko gara. Etxetik irten gabeko bidaia bat. Guzti honek, ezinbestean, Maurice Sendak-en Piztiak bizi diren lekuan liburu klasikoa ekartzen digu gogora. Ez bakarrik haurtzaroko irudimenaren aldeko aldarriak, baita istorioaren amaierak, non berriz ere heldu baten ahotsak etengo digun sormenaren jarioa.

Nola ez, umorea da nagusi kontakizunean zehar. Irudiak xalo eta dibertigarriak, koloretsu bezain goxoak, haurtzarora garamatzate. Gainera, kontakizun errimatuak, arintasuna eta dinamismoa ematen dio istorioari, hitzak beraiek ere jolas bilakatuz. Guztia da jolas liburu dibertigarri honetan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Kontatzeko eta haien eskuetan uzteko albuma. Mozorroak ekarri eta protagonista bezala jolas sinbolikoetan aritzeko tarte hartu daiteke (psikomotritzitate saioetan, adibidez). Era berean, Piztiak bizi diren lekuan liburuarekin lotu daiteke irakurketa.



## KU-KU, NOR ZARA ZU?

Idazlea: Yayo Kawamura

Ilustratzailea: Yayo Kawamura

Itzultzailea: Amets Sanchez (Bakun S.L.)

Tarttalo, 2019

ISBN: 978-84-9843-841-3

32 orrialde

Hegaldun liburua

Kukuka edo kukuketan jolasteko proposamena egiten digu liburu honek, begiak eskuez estali eta hatz artetik begiratuko bagenu bezala ibiliko baikara. Izan ere, orrialdez orrialde zulotxoren bat duten orri-hegalak topatuko ditugu eta alboan errepikatzen joango den galdera bat: KU-KU, nor zara zu? Irakurleak, hegalaren atzean ezkutatzen den animalia zein den asmatzera jolastu ahal izango du. Zulotxoaren tamaina ezberdinek, erakusten diguten animalia ezaugarriek, koloreek... sorpresa bat edo beste emango diote irakurleari. Azken finean, egitura errepikakorrek eta jolasak, irakurlearekiko hartu-emana, inplikazioa eta plazera bilatzen dute. Animaliak ezauguearekin batera, irakurketa ekintza eta jarrera bat bilatzen da, irakurlearekin jolastuz. Gainera, ilustrazio eta, bereziki, koloreek garrantzi handia hartzen dute, deigarriak eta aldi berean soilak baitira.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahots gora irakurriaz, asmatzera jolastu. Baina, horretaz gain, begiak itxi eta "ku-ku, nor zara zu?" esanez, hotsekin ere jolastu gaitzke. Ondoren, animaliak eta haien ezaugarrien inguruan informazioa biltzeko proposamena ere egin daiteke.



## NON DAGO TXIRLO?

Idazleak: Miriam Peña, Eneritz Sanchez  
eta Irene Fernández

Ilustratzailea: Eider Eibar

Denonartean, 2018

ISBN: 978-84-16791-72-9

60 orrialde

Jolas liburua

Bola-joko batean gaude. Irakurle-jokalariak bola bota eta... Hara! Non dago txirlo? Liburu interaktibo honetan, txirloak erori eta berriz ere jolaserako prestatzen diren tarte horretan murgilduko gara. Irakurleak, edo hobe esanda, jokalariak, orriz orri hatza erabiliz lagundu egin beharko dio Txirlo protagonistari irteera bidea topatzen.

Mundu surrealista batean murgiltzen gaitu liburuak. Irakurlearen eraginez, forma geometriko soilak itxuraldatu egingo dira, kolore zuri-beltzetatik kolore leherketa emango da eta irakurketa plano aldaketak egongo dira liburuan zehar. Orriz orri sorpresa aldrebesak topatuko ditu bolo-jokalariak. Izan ere, testua eta irudiak, istorioa bera, soilak dira, testu zuzena eta sinplea, irudi plano eta geometrikoak... Interesgarriena, ordea, elementu guztien itxuraldaketa, dinamismoan eta Txirlo eta irakurlearen arteko jolasean eta interakzioan dago. Jolaserako jolas-liburua da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Jolas liburua den aldetik, ahots gora irakurri ahala, haurren interakzioa beharrezkoa suertatzen da. Beraz, bitartekariak eta haurrak elkarrekin, haurrak taldean edota bakarka irakurri daiteke. Antzerako liburu interaktiboak ere gelaratu daitezke, hala nola Herve Tulleten liburu ezagunak.



## BETI BEZALA, EZER EZ?

Idazlea: Christian Voltz

Ilustratzailea: Christian Voltz

Itzultzailea: Xabier Olarra

Pamiela- Kalandraka, 2019

36 orrialde

Album ilustratua

Louis jaunak lurrian zulo bat egin eta hazi bat jaurti du. Lur eman eta ureztatu ondoren, egunero joaten da landarea nola hazten den begiratzera. Baina, -beti bezala, ezer ez?- galdetuko du Louis jaunak lur azalera ezertxo ere ez ateratzen ez dela ikusterakoan. Louis jaunak itxaron egin beharko du, pazientzia handia eskatu beharko diogu. Istorio honetan irakurleak ikuspegi pribilegiatua du eta protagonistak ez bezala, lur azpian gertatzen ari den guztia jakingo du. Noski, irakurlearen lasaitasunari, protagonistaren haserrea eta frustrazioa kontrajarriko zaizkio, umoreari tartea utziz. Irakurlea bete betean inplikaturik izango da.

Istorio honetan, landare baten hazkuntza prozesua kontatuko zaigu, baina oinarrian, norbere lorpenez gozatzeko, itxarotea eta pazientzia izatearen balioa aldarrikatzeko metafora bat da. Guzti hau, Voltzek egin ohi duen moduan, objektu birziklatuen bidez eginitako collage adierazgarri eta originalen bitartez kontatuko zaigu. Christian Voltzen beste liburua: Ez da nire errua!

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahots gora kontatzeko eta haurren eskuetan uzteko aproposa. Ezagutzen alorrean, landareen hazkuntza prozesuan barneratu gaitzke. Arte plastikoaren alorrean, collagearen teknika esploratu. Azkenik, pazientzia eta denbora bezalako kontzeptuen inguruan jarduteko aukera ere eskaintzen du.





## GABI ETA BERNARDAREN KOMERIAK

Idazlea: Antton Kazabon

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Mezulari, 2019

ISBN: 978-84-271-4364-7

48 orrialde

Album ilustratua

Gabi eta Bernarda bi txerri dira, komeria pila izaten dituzten bi txerri. Komeria horietako bat edo beste konpontzeko, idi parakaidistaren laguntza izango dute bi txerriek. Baina topatuko al dute konponbiderik elkarrekin? Non bilatu beharko dute laguntza? Irakurlea bera ere nahaste-borraste dibertigarri horretan murgilduko da. A ze komeriak album ilustratu honetan aurkituko ditugunak!

Bi autoreen lanetan ohikoa den bezala, umorea, barrabaskeria eta dibertsioa dira nagusi, bi txerriren pasadizo eta istorioak jasotzen dituen album ilustratu honetan. Testua, arina eta zuzena, barre eginarazteko prestatua dago. Marrazkiek, era berean, animalia pertsonifikatu barregarriak erakusten dizkiguten ilustrazio burugabe eta zoroak dira. Finean, barrez gozatzeko albuma da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Kontatu eta haurren eskuetan uzteko album aproposa da. Horrez gain, bi autoreen lan gehiago ezagutzeko aukera izan dezakegu, haurren euskal literaturako ibilbidean murgilduaz. Era berean, idazketa tailer batean, Gabi eta Bernardaren komeriaren bat sortu dezakegu.



## HITZEN IRUDITEGIA

Idazlea: Ane Arzelus

Ilustratzailea: Ane Arzelus

Denonartean, 2019

ISBN: 978-84-17940-05-8

44 orrialde

Dibulgazio liburua

Aberats, galtzerdi, zubi... Euskarazko hitzak eta hauen esanahia argitu nahi izango diguten irudiak topatuko ditugu bilduma honetan. Izan ere, kultura bakoitzak era ezberdin batean antzematen du ingurua eta horren arabera izendatzen da. Hortaz, nola antzematen da euskaraz? Liburu honetan, euskaraz ingurua nola izendatzen den ikusi eta inguru hori, harremanak, objektuak, sentimenduak, etab. euskal kulturak nola ulertzen dituen hausnartzera eramango gaitu, geure bizimodua eta kultura gehiago ezagutaraziz.

Hitz eta irudiez gain, anekdota eta datu historikoak, bitxikeriak... aurkitu daitezke orri hauetan zehar. Beraz, ikerketa linguistiko edo antropologikoa eta ilustrazio lan bilduma baten arteko hibridoa da. Ilustrazioak kontzeptualak eta minimalistak dira eta ilustrazioaren oinarritzko funtzioa betetzen dute: hitzaren esanahia argitzea, komunikatzea. Hori bai, era oso originalean, jolas bat proposatuz, hitzen esanahia ezkatutuan daramaten irudiak izango baitira askotan. Iru-diek erakutsiko digute nola antzematen den mundua euskaraz.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Geure euskal kulturaren ezagutzan sakontzeko tarte hartu daiteke: euskararen jatorria, historia, egungo egoera... Azterketa antropologikoa egiteko aitzakia izan daiteke: ezagutzen ditugun hitzen jatorria ikertu, hipotesiak formulatu, tokiko hizkera ezagutu.




JOEMAK ETA POLASAK  
Idazlea: Iñigo Astiz  
Ilustratzailea: Maite Mutuaberría  
Elkar, 2019  
ISBN: 978-84-9027-968-7  
72 orrialde  
Poema liburua

«Ehizan dabil katua eta ihesi kakatua. Eta batak beti korri eta beste beti hegan. Azkenean nekatu da katua eta nekakatu kakatua» dio liburu honetako joema batek, polasera animatuaz. Horixe baita liburu hau: jolasteko poema liburua. Jolasa da nagusi, bai poemetan, bai ilustrazioetan, bai aurkibidean, bai izenburuetan, bai azalean eta baita mamian ere. Ezin gara liburu honetako tarte bat beraz ere fidatu, elementu guztiak ari baitira gurekin jolasean. Edo, fidatu gaitzke eta haien jolasean sartu, dibertitu eta jolastu, ororen gainetik jolastu.

Poema aldrebesak, oso bisualak, soinudunak, errimatuak, kontzeptualak... era guztietako poemak topatuko ditugu eta guztietan umorea, bihurrikeria eta jolasa dira nagusi. Akwarelazko ilustrazioak biziak, kolore askokoak, zirriborro itxurakoak, zentzu poetikoz zizpriztindutako izaki bitxiak agertuko zaizkigu poemekin jolasean. Poema eta ilustrazioak elkarrekin jolasten dute, geurekin ere jolasean ari diren bitartean.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Zenbait poema ahots gora irakurri, beste hainbaten irudiak eta testuak ikasleen eskuetan utzi... ikasleek poema eta irudi bakoitzean aurkitzen den jolasa, trikimailua, sorpresa... antzemanaz ondo pasako dute. Zenbait ausartu daiteke antzerako poemak sortzera, irudiak gehitzera...



## ORAIN EZ, BEÑAT

Idazlea: David Mackee

Ilustratzailea: David Mackee

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Pamiela- Kalandraka, 2019

ISBN: 978-84-9172-086-7


32 orrialde

Album ilustratua

«Orain ez, Beñat» erantzuten diote gurasoek Beñati, behin eta berri. Kanpoan, ordea, Beñat jan nahi duen munstro bat dago eta Beñat gurasoei jakinaren gainean jartzera joandakoan ere «Orain ez, Beñat» besterik ez du entzungo. Beraz, munstroak jan dezan utzi beharko du, zer erremedio. Halaxe, munstroak Beñaten lekua hartuko du etxean, baina denon harridurarako, gauzak ez dira guk uste bezain beste aldatuko.

1980an argitaratutako klasiko honek, ez du galdu gaurkotasuna. Garai hartako haur literaturaren joera nabarmena izan zen istorio errebelde edo antiautoritarioak sortzea eta horrela topatzen dugu istorio honetan hartzaileen rol truke bat, gurasoentzat baita irakaspenezko mezua eta haurrentzat dibertsioa. Istorioak haurrekiko konplizitatea bilatzen du, haiei ematen die arrazoia umore beltzezko istorio dibertigarri bat eskainiaz. Eta aldi berean, gurasoei, egun ere nabarmena den inkomunikazio eta arreta faltaz jabearaziko die. Istorio simple bezain sakona. Testu arina eta zuzena, egitura errepikakorra, irudi koloretsu eta oso adierazkorrak, xebreak, xaloak dituen eta aldi berean, gauza asko esan gabe uzten dituen istorio aztoragarria.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Galderak egiteko liburua da: Non dago Beñat?, gurasoak konturatu dira?, edo nola konturatu dira?, nor da Munstroa?, eskolara joaten bada, zer?, Beñat munstro batean bihurtu da?



## SASOIKO FRUITUAK

Idazlea: Clara Corman

Ilustratzailea: Clara Corman

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Tarttalo, 2018


ISBN: 978-84-9843-779-9

34 orrialde

Dibulgazio liburua

Fruituen katalogo bat aurkezten digun dibulgaziorako albuma da. Bertan, azal gogorreko orrietan barrena, fruituak agertzen joango zaizkigu. Orrialde batean, haien jatorriari eta ezaugarriei buruzko datuak eskaintzen dira, hala nola, landarea edota loreei buruzko informazioa. Eta beste orrialdean, fruitua bera, eta orri-hegalak zabalduz gero, fruitua barrendik nola den ikusteko aukera eskaintzen zaigu. Amaieran, aurkeztu diren fruituak zein urtarotan topatu daitezkeen jakiteko taula ere ematen da. Guzti hau, era sinple eta argian aurkeztua. Hondo zuri baten gainean, kolore biziko fruituetara eramaten da arreta. Ilustrazioak sinpleak, argiak, soilak eta errealistak dira; helburua argia baita: fruituak nolakoak diren aurkeztea. Bilduma bereko beste liburua: Sasoiko barazkiak.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Jolastuz ikasteko material bikaina. Fruituak barrendik ze koloretakoak diren asmatzera jolastu gaitzake, egiazko fruituekin konprobatzen saiatu...



## TITIRIMARI

Idazlea: Xerardo Quintiá

Ilustratzailea: Maurizio A. C. Quarello

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Txalaparta, 2019

ISBN: 978-84-17065-79-9


48 orrialde

Album ilustratua

Atzobezperako erreinuan, Titirimari izeneko printzesa bat bizi da. Haren amak, Mandolina erreginak, bere alaba ipuinetako printzesek bezalakoa izan eta ezkondu dadin amesten du. Haren aitak, Tartufo erregeak, ez du ezer esaten, lo egitea amesten du. Beraz, Titimirarik erreinutik alde egin eta bere amets propioak topatuko ditu, abenturaz abentura, lagun berrien eskutik: hitz egiten duen astoa, belarjale bilakatu beharko duen munstroa, hitz asmatzailea, ezpain gozoak dituen Wendolin printzesa...

Maitagarrien betiko ipuin bat da, ezaugarri berri eta ezberdin ugari nahastuta eta aberastuta. Izan ere, ipuin hauetan ohikoak diren printzesa, ogro, animala hitzun eta garai eta egoera sinesgaitzak agertzen badira ere; printzesa ekintzailea den protagonista, homosexualitatearen gaia eta ametsen bitarteko meta-fikzioa bezalako elementuekin, istorio garaikideago bat aurkezten zaigu. Gainera, surrealismoa eta umorearen erabilerak istorioa hare adierazgarriagoa egiten du. Testu dinamiko, xelebre eta errimatuak, bat datoz irudien adierazkortasun eta aldrebeskeriarekin. Finean, surrealismoz beteriko ipuin maitagarri bat da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahots gora irakurri ondoren, eskuetan uzteko liburua. Bereziki, maitasunaren iruditegi zabal bat eraikitzeko aukera eskaintzen du. Galderak ekar ditzake: maitemindu zarete inoiz?, sexu bereko, nahiz ezberdinekoekin? Zergatik hartuko ote du txarto erreginak?... Ilustratzailearen biografia ere ezagutu daiteke: Sorgina Kirris karras, El tragaldabas...



## ETXE HONETAN

Idazlea: Aintzane Usandizaga

Ilustratzailea: Asier Iturralde, "Gastón"

Pamiela- Kalandraka, 2019

ISBN: 978-84-9172-128-4


36 orrialde

Album ilustratua

Aitonaren etxean arau batzuk daude, baina bere bilobak kontatzen digunez, hari erraza egiten zaio etxe hartan aitonaren arauen artean moldatzea. Aitonaren errutinak eta egunerokotasuna apur bat aldrebestuko dituen biloba dibertigarri baten istorioa da, protagonistak esango digun bezala, aitonaren etxea berea ere bilakatu delako. Irakurleak ikusi beharko du nork agintzen duen etxe honetan.

Askori ezagunak egingo zaizkien egoera eta gertakariak deskribatzen ditu bilobak, bizitasun eta umore handiz. Baina istorio honetako gainerako ahotsak entzuteko, irudian arreta jarri behar. Izan ere, bizipenak inozentzia handiz partekatuko dituen haurraren ahotik ateratako hitz gutxi batzuk eskaintzen dizkigu testuak. Aldiz, komikietako trazuak dituzten irudiek kontatuko digute gainerako guztia, hala nola, aitona euskaldun modernoak bilobagatik egingo dituen aldaketa guztiak, bai sukaldean (errezeta bat ere eskainiko digute), denbora-pasan, baita pazientzian ere. Konbentzionala ez den familia dibertigarri baten etxean muturra sartu eta kuxkuxeatzeko aukera paregabea eskaintzen digu album ilustratu honek.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Kontatu eta haurren eskuetan uzteko liburua. Ondoren, solasaldi literarioa egin daiteke: gaiaren inguruan (arauak: zein arau ezagutzen dituzue? Zertarako balio dute? Zuek jartzen dituzue?), pertsonaiak (familia ereduak...), ilustrazioak (irudia irakurtzen trebatzeko: zer kontatzen digute irudiek?)...



## EUSKAL HERRIETAKO IPUIN MIRESGARRIAK

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Denonartean, 2019

ISBN: 978-84-17940-13-3

81 orrialde

Ipuin bilduma

Euskal Herrietako ipuinen hirugarren alea da. 2017an Euskal Herrietako ipuinak, 2018an Euskal Herrietako ipuin gaiztoak eta 2019an Euskal Herrietako ipuin harrigarriak argitaratu da. Guztiak dira euskal ahozko tradizioetik jasotako ipuin bildumak, J.K. Igerabidek moldatuak eta Elena Odriozolak ilustratuak. Azken liburuko istorioek, etxera bueltarik ez duten abenturetan murgilduko gaituzte. Ipuineko neska-mutilek aurre egin beharko diete, bakar-bakarrik, bizitzan suertatuko zaizkien arazo eta larridurei, magia eta norberaren trebeziak lagun. Hain zuzen, horixe da irakurlearentzako mezua: gurasoak albo batera utzita, norberaren trebeziak azaleratu behar bizitzako arazoei aurre egiteko. Hitzaurrean Igerabidek dioen moduan, ipuinok ez arrazionalki, baina bai modu sinbolikoan, bizitzaren mapa eskaintzen digute, etorkizunean aurkituko ditugun zailtasunen gida moduko bat. Zaku bete hauts, Errotariaren katua, Xirula miresgarria eta Arrautza bi eta hiru tresna harrigarri dira, deabruak garaitzen eta abilezia handiz jokatzen erakutsiko diguten ipuinak.

Kasu honetan, Odriozolaren ilustrazioetan, ipuineko gertakarien itzalak edo siluetak antzemango ditugu, sekuentziatuak, itzal txinarrak edo clipart bat egingo balu bezala.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Kontatzeko edo lehen irakurleekin batera irakurtzeko liburua. Gaitasun narratibo eta sortzailea lantzeko aproposa: ipuinen egitura landu, ipuinak moldatu, antzerkita eraman... Irakurketa hauek, klasiko unibertsalen irakurketa eta konparaketarekin ere osatu daitezke.





## FRUITU ETA BARAZKIEN INBENTARIOA

Idazlea: Virginie Aladjidi

Ilustratzailea: Emmanuelle Tchoukriel

Itzultzailea: Mikel Taberna eta Juanjoxe  
Petrirena

Ttartalo, 2019

ISBN: 978-84-9172-100-0

80 orrialde

Dibulgazio liburua

Landareen fruituak, sustriak, zurtoinak, erreboilak, hostoak, loreak, haziak... agertzen dira kolorearen arabera sailkatutako inbentario honetan. Landareak aztertu eta haietatik ateratzen diren elikagaiak zeintzuk diren ezagutzeko material aparta, baita elikagai horiek non aurkitzen diren, nola jan daitezkeen eta haiekin zein bestelako elikagai sortu daitezkeen jakiteko liburu egokia ere bada. Agertzen diren fruitu eta barazkiak, jatorrizko lore edo landarera loturik edota bildu ondoren eta zatitu edo sukaldean prestatu ondoren hartzen duten forman ikusi ahal izango dira. Gainera, landareen ingurunea edo habitata hobe ezagutzeko hainbat datu ere eskaintzen dira, hala nola, haiekin bizi diren intsektu, hegazti edo narrastien irudiak. Espeziak, perretxikoek eta algek ere badute beren txokoa liburuan. Bistan da, biodibertsitatea, jasangarritasuna eta elikadura osasungarria sustatzera begira sortua izan dela dibulgaziozko liburu hau.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Teoriatik praktikara salto eginaz, ikerketa jolas interesgarriak egin daitezke: plater/menu osasungarriak osatu, sukaldean aritu, fruitu eta barazkiak landareetan kokatu jatorriaren arabera, baratzean haziak landatu eta bildu...



## GORRI!

Idazlea: Alice Briere-Haquet

Ilustratzailea: Elise Carpentier

Itzultzailea: Jean-Louis Davant

IKAS, 2018

ISBN: 978-2-84963-154-6

38 orrialde

Album ilustratua

«Behin bazen, nonbait, han, oihan xoko batean, amatxino bat oso pollita. Matelak zituen gorriak, arrasondo bikain gorria, zaia xarmagari gorria, bai eta erridau gorriak. Hori zuen kolore maiteena» Halaxe hasten da istorioa. Amatekinok, puntuz eginiko hainbat opari egingo dizkio bilobari. Azkenik, oinetatik bururaino doan txanodun jantzi gorria oparitu eta «Horrekin ez zaizu, sinets nazazu, deus gertatzen ahalko» dio, biloba basorantz abiatu bitartean.

Ipuin xumea, soila eta sinplea da eta iparraldeko euskalkian itzulia badago ere, hegoaldeko irakurleek erraztasunez jarraitu dezakete, egitura errepikakorra duen istorio intuitibo bat baita. Baina, ipuin honek, aldi berean, kontatzen ez den horretan du sakontasun edo konplexutasun handiena. Irakurleek Txanogorritxoren ipuina eza-gutzen dutela jakinda, istorioa zentzu askotan interpretatua edo osatua izango da. Istorioa haratago doa irakurlearen baitan, konplize bilakatuko da. Gainera, kolore gorri, beltz eta zuriz, eta trazu soilez eginiko irudi indartsuek, kontatzeko gauza asko dituzte.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahots gora kontatzeko albuma. Istorioa jarraituz, Txanogorritxo antzestu daiteke. Eta ausartuz gero, amaiera berridatzi. Era berean, Txanogorritxoren inguruan egin diren bertsio-moldaketak gelaratu daitezke. Ikas pedagogia zerbitzuaren baliabideak hementxe: <http://www.ikas.es/spip.php?article3282&lang=eu>



GURDI HANDIA

Idazlea: Jesus Mari Olaizola "Txiliku"

Ilustratzailea: Eider Eibar Zugazabeitia

Elkar, 2019

ISBN: 978-84-9027-912-0


32 orrialde

Narrazio laburra

Munduan beste asko bezala, behin batean baziren baserri batean bi idi. Eta gau batez, etorri ziren bi lapur, eta eraman zituzten bi idiak. Halaxe hasten da istorio dibertigarri hau. Etxeko nagusiak neska-meia bidaliko du idien bila lapurren atzetik, baina etortzen ez denez, mutikoa bidaliko du, eta honen atzetik txakurra. Jarrarian, ordea, nagusia bera ere abiatuko da, eta halaxe ibiliko dira, bata bestearen atzetik, bata bestearen bila, esku-argiak piztuta.

Izar multzo edo konstelazio baten sorreraren azalpen literario eta fantastikoa eskaintzen digu liburuak. Pertsonaiek kate bat osatuko dute eta kate horrek konstelatzeko du istorio dibertigarria. Narrazio labur honetan, gertakarien errepikapenak, pertsonaien arteko elkarrizketa errimatuek eta umoreak hartzen dute lekua, ahozko-tasunetik datozen formulak errepikatzeaz gain. Honi, Eider Eibarren ilustrazio goxo, umoretsu eta argitsuak gehitu behar zaizkio.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahots goran irakurtzeko aproposa. Irakurketaren ostean, errimekin jolastu dezakegu, hitz jokoak eginez adibidez. Ariketa polita litzateke, izarren konstelazioen ideia ebatuta, beste izar multzo batekin beste istorio bat asmatzea.



## HARTZ ZAHARRAREN SEKRETUA

Idazlea: Pedro Mañas

Ilustratzailea: Zuzanna Celej

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Pamiela-Kalandraka, 2019

ISBN: 978-84-9172-081


36 orrialde

Album ilustratua

Oraindik zuriz estalitako basoan, oinatz batzuk agertu direla ikusi du Bele Andreak. Hara, Hartz Zaharra da, lozorrotik goiz esnatu baita! Baina, Hartz Zaharra kezkatuta dago, ez baitu gogoratzen lotara joan aurretik non gorde zuen bere sekretua. Hortaz, Bele Andrearen laguntzarekin sekretu haren bila abiatuko da basoan zehar. Konturatzera, baina, xuxurlaka iritsiko zaie haien begi-belarrietara, behin Hartz Zaharrak gordetako hura.

Album poetiko honetan, bizitzaren zikloi buruzko metafora bat eskaintzen zaigu. Eta ildo beretik, naturari hitz egiten uzten dion liburu bat da. Istorio hau Hartz Zaharrak, Bele Andreak eta Naturak berak kontatuko digute. Prosa poetikoaren eta ilustrazioen arteko elkarrizketan, basoko isiltasuna entzungo dugu, lore eta zuhaitzen xuxurlak adituko ditugu... natura hizketan entzungo dugu. Guzti honetan, zeresan handia dute istorioan barneratuko gaituzten collage eta akuarelazko irudi errealista, goxo eta sentikorrek. Ezer ez gogoratzearen zurtasunetik, udaberri koloretsura eramango gaituen misterioz eta hotsez beteriko liburua da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ahots gora kon-tatzeko aproposa. Urtaroak eta haien aldaketa eta ezaugarriez mintzatzeko aukera paregabea eskaintzen du. Jolas moduan, irakur-gaiaren hasieran, hartzaren sekretua igartzeko erronka bota daiteke, misterioa indartuz.



WINNIE POH  
Idazlea: A.A. Milne  
Ilustratzailea: E.H. Shepard  
Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide  
Denonartean, 2019  
ISBN: 978-84-16791-96-5  
220 orrialde  
Narrazio liburua

XX. mendeko britaniar literaturako klasikoa dugu narrazio liburu hau. Milnek, haren seme Christopher Robinen pelutxezko hartza, fikziozko pertsonaia bilakatu zuen liburu honetan. Bertan, haurren artean oso ezaguna egin izan den Winnie Pooh hartzaren uni-bertsoa ezagutzeko hainbat istorio labur biltzen dira kapitulu ezberdinetan. Ipuinez ipuin, Christopher eta Poohren arteko harremana edota Txerritxo eta gainerako lagunen jatorrizko abenturak ezagutuko ditugu.

Istorio laburrak, goxoak eta dibertigarriak dira guztiak. Hautzaroko ezaugarri eta iruditeria jasotzen dute eta haurren beraien mundu xalo eta sineskorrera garamatzate. Testua bera oso argia eta zuzena da, elkarrizketaz josia eta erabat dinamikoa. Juan Kruz Igerabidek maisuki itzuli du, jatorrizkoaren ezaugarri horiek mantendu eta idazketa zaindua jasoaz. Halaber, jatorrizko liburuan E.H. Shepardek eskuz eta arkatzez marrazturiko ilustrazio soilak, bezain goxo eta errealistak jaso dira euskaratutako liburu honetan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Kontatzeko edo lehen irakurleekin batera irakurtzeko aproposa. Zein genero artistiko ezberdinetara moldatua izan den deskubritu daiteke: filma, marrazki bizidunak... Ikasleek ere moldatu dezakete oso ezaguna den istorio bat? Egin proba!



## JAKES ETA HERIO

Idazlea: Tim Bowley

Ilustratzailea: Natali Pudalov

Itzultzailea: Garazi Arrula

Txalaparta, 2019

ISBN: 978-84-17065-70-6

32 orrialde

Album ilustratua

Ama hiltzorian duela, Jakesek Herio topatu du aurrez aurre haren amaren bila dabilela. Aibilezia handiz, Herio gaintik kentzeko plan bat burutuko du Jakesek. Baina, ama salbatu bada ere, gertakizun hark ondorio lazgarriak ekarriko ditu: munduan ez da ezer hiltzen, gutzia da kaosa. Ama berak ulertarazi beharko dio Jakesi bizitza bezain beharrezkoa dela heriotza.

Istoriok ahozko tradizio britaniarrean du jatorria. Heriotzaren gaia onarpenaren ikuspegitik hartzen da, baretasuna eta ulermena transmitituz. Heriotza, adeitsu eta ulerkor, bizitzaren adiskide agertuko da. Baina, gaia sinpleki aurkezteak ez du esan nahi sakontasuna kentzen zaionik, Jakes tristeziatik, euforiara edota egonezinetik baretasunerantz doan bidaia emozionala biziko du, baina, gehiegizko dramatismoan erori gabe. Bestalde, ahozkotasunaren presentzia handia duen testu zuzen eta arinaz gain, sinbolismoz eta metafora bisualerik beteriko ilustrazioak aurkezten zaizkigu. Bele beltzak, korapilatu eta lasaitzen den hari gorria, erlojua, txakurraren konpainia... irudizko detaile ugariak hitz egingo digute bizitzaz eta heriotzaz. Errealista bezain fantastikoa suertatzen da istorioa.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Bowleyren liburuak ezagutzeko aukera: Ameliak Txakur bat nahi du, Pintto oilarraren ezteiak... teknikan eta estiloan arreta jarriaz. Heriotzaren gaiak, irudietako sinbologiak... joko emango digu lantzeko tertulia literario batean.



## PUKA ETA MATEOREN OILARRA

Idazlea: Jokin Mitxelena

Ilustratzaileak: Jokin Mitxelena

Elkar, 2019

ISBN: 978-84-9027-910-6

62 orrialde

Narrazio liburua

Puka artzain txakurrak adi zaindu behar ditu beti nahaste-borras-teren batean dabiltzan neska-mutilak, haren lagunak: Marina Mostaza, Nora Ketchup, Kepa Piper, Blas Amuarrain eta Lizar Txanpu. Haien usainek nahastezin egiten dituzte Pukarentzat. Asperturik dauden egun batean, Mateo Legami herriko okina hurbildu zaie aztoratuta. Izan ere, Ronaldo Oilarrak ihes egin duenetik ezingo du haren kukurrukuei esker garaiz esnatu herritarrentzako opilak prestatzeko. Herritarren gosariak arriskuan daude, beraz, Ronaldo aurkitzeagatik, Puka eta lagunak herria hankaz gora jartzeko prest daude.

Puka zakurrak haren ikuspegi edo usaimenetik kontatuko digu, kapitulu laburretan banatutako narrazio-liburu honen istorioa. Beraz, zakur baten azaletik, irakurleak herritarren ateraldiekin barre egiteko aukera izango du. Izan ere, umorea eta aldrebeskeria dira nagusi lan honetan, bai testuan, baita irudietan ere. Idazketa zuzen eta dinamikoa da, hain zuzen marrazki errebelde eta koloretsuek dauzkaten ezaugarri berberak. Mitxelenaren lanek duten ohiko tonu bihurria nabarmena da Puka eta lagunaren abenturan ere.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Irakurterraza da euren kabuz irakurtzeko, baina ahots gora irakasleak, kapituluka, konta dezake. Aukera ezin hobea Jokin Mitxelenaren lana eza-gutzeko. Bere lanean arakatu eta aurkezpen txo bat prestatu daiteke. Bideo honetan ikusi dezakegu: <https://youtu.be/-EO5qvzU7wl>.



## SIBERIA TRENEKO IPUINAK

Idazlea: Bernardo Atxaga

Ilustratzaileak: Jon Zabaleta, Asun Balzola eta Antton Olariaga

Erein, 2019

ISBN: 978-84-9109-453-1

176 orrialde

Ipuin liburua

Trenez egiten diren bidaiak luze-luzeak izaten dira, baina Bernardo Atxagak eta haren lagun bidaiariek, asperguraren kontrako ipuin dibertigarriak kontatuko dizkigute treneko bagoian eserita daudelarik. Antonino Apreta, Txiten istorioa, Asto bat hipodromoan eta Jimmy Potxolo dira ipuin horien izenak.

Liburu honetan, Atxagaren lau ipuin historiko ezberdin hauek jaso eta eguneratu dira, guztiak kontakizun baten barnean bilduak. Beraz, trenean ipuin batetik bestera bidaiatuko dugu. Ipuin bakoitza ezberdina da eta umore absurdoz beteriko istorioetatik, istorio sentimentalagoetara edota detektibeskoetara egingo dugu salto. Baina, guztietan nabarmena da fantasiaren aldarrikapena, umorea eta irudimenaren jolasa. Gauza bera gertatzen da ilustrazioekin. Asun Balzola, Jon Zabaleta eta Antton Olariagaren jatorrizko ilustrazioak, ipuin bakoitzak eskatzen duen tonura hurbiltzen diren arren, guztietan nabarmena da fantasia, umorea eta irudimenaren aldarrikapena.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Idazketa tailerrean ipuinak sortzera animatu daitezke, ipuinak berridatziz, eredu gisa hartuz (ukitu fantastikoak, absurdoa, animalien pertsonifikazioa...). Bernardo Atxagaren gainerako liburu klasikoak ezagutuz (Xola, Banbulo...), haurren ibilbide literarioa aberastu dezakegu ere.





## WALUK

Idazlea: Emilio Ruiz

Ilustratzailea: Ana Miralles

Itzultzailea: Bego Montorio

Astiberri, 2017

ISBN: 978-84-16880-38-6

46 orrialde

Komikia

Waluk izeneko hartz zuri txikia abandonatua izan da, baina hartz zuri zahar erretxin baten lagun eginaz, abenturetan murgilduko da komiki honetan. Bakardadeari, etsaiei eta arriskuei aurre egingo diote elkarrekin eta elkarri bizirauten erakutsiko diote, baita irakurleoi irakatsi ere. Txikiaren abilezia eta zaharraren esperientzia beharrezkoak izango dira gizakion krudelkeriari, ingurugiroaren egoera arazotsuari eta haien espezie bezala dituzten arazoei aurre egiteko, baina baita harreman sendo eta hunkigarri bat sortu eta haien hutsune eta bakardade sentimenduei aurre egiteko ere.

Komiki honetan, gai sozial zein pertsonalak ukitzen dira, ingurugiroaren egoeraren salaketarekin hasi eta sentimenduez hausnartzen amaitu arte. Orokorrean, errespetuaz ari zaigu, animaliekiko eta ingurugiroarekiko errespetuaz eta pertsonen arteko errespetuaz. Izan ere, gizakion arazo eta sentimenduak hartz zurien azalean ikusita, hartz zuriak pertsonatzat hartu eta bidaia emozional hunkigarria egingo dugu pertsonaien eskutik. Ilustrazioak ere hurbilpen eta hunkipen hori bilatzen dute. Hartzen irudiek gizakion adierazkortasuna islatzen dute, oso errealistak dira, oso adierazkorrak eta kolore bizikoak.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Komikietan murgiltzeko liburu aproposa. Norbanako edo talde txikian irakurri daiteke. Ostean komikietan barrena ibilbide literarioa sortzen joan daiteke: ze komiki mota daude?, komiki hau ze familietan sartuko genuke?, zeintzuk dira idazle eta ilustratzaileak, erreferentziakozkoak dira?



HATZ MIRAGARRIA

Idazlea: Roald Dahl

Ilustratzailea: Quentin Blake

Itzultzailea: Xabier Bilbao

Begiko, 2018

ISBN: 9788476839162


80 orrialde

Narrazio laburra

Zortzi urteko neskatila batek ahalmen berezi bat du! Ez daki nola, baina, haserretzen denean, gogoko ez dituen pertsonak zigortzen ditu bere hatz erakusleaz seinalatuz. Hauxe gertatuko zaie, ahate batzuk ehizatu nahian dabiltzan Gregg familiako kideei. Neskatilak hatz miragarriaz seinalatu ondoren, Gregg familia ahate bilakaturik, haien etxean sartu diren ahate-gizakiekin haiena zen guztiagatik borrokatu beharko baitute.

Roald Dahlen ipuin klasikoetako bat, ilustratzaile ezberdinen marrazkiekin hainbatetan argitaratua izan dena, Quentin Blake-n ilustrazioekin dator oraingoan, biek haien estiloari zintzoki jarraituz. Dahl-ek oraingoan ere, umorea eta fantasia erabiliaz, hurrei boterea ematen die helduen injustiziak eta akatsak salatu eta haiei aurre egiteko, era oso dibertigarrian. Eta Blake-k, zuri-beltzean, zirriborro itxurako ilustrazio errebelde eta jostariak dakarzkigu, istorioaren errebeldia eta umorearekin bat eginaz. Beraz, Gregg familiaren komerierekin barrez lehertzeko eta hurren magian sinesteko istorio dibertigarri eta irakurterraza da honakoa.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Irakasleak ahots goran kapituluka kontatzeko liburu aproposa. Istorioak sortzeko jolasak egin daitezke: Zer aldatuko zenuke zuk atzamar magikoa izanez gero? era plastiko edo narratibo batean adierazi daiteke.



## ILUNEKO ARGI

Idazlea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Raquel Catalina

Ibaizabal, 2019

ISBN: 978-84-9106-785-6


144 orrialde

Narrazio liburua

Hermenegildo agure erretxina izan da orain arte. Baina, bihotzeoak eman eta goizero paseatzera ateratzen denetik, bizitza aldatu egin zaio. Eskolako atarian, bederatziko taula kantatuz pasatzen den neskatila ezagutuko du: Iluneko Argi deituko dio berak. Agureak zenbaitengan mesfidantza eragingo badu ere, belaunaldi ezberdineko bi pertsonaia goxo hauen adiskidetasunak kontrakoa erakutsiko digu. Zahartzaroak, ezagutza eta tradizioa ekarriko dio neskatilari, Hermenegildok zuhaitzei entzundako kantu eta istorio zaharrak kontatuko dizkigu eta. Eta haurtzaroak, bizipoza eta amesteko askatasuna eskainiko dio agureari, gauza txikiez gozatu eta beldurrik ez izaten erakutsiko baitigu Iluneko Argik.

Azken finean, belaunaldien arteko ezagutzen trukaketa bat ematen da istorioan. Gainera, istorioaren barnean kantu eta ipuin tradizionalen kontaktak topatuko dira. Irakurgai dinamikoa eta irakurterraza da, nahiz eta hizkera poetiko eta intimistan idatzia egon. Eta ilustrazioak, testuarekin bat, goxoak eta zahar itxurakoak dira. Batuta, irakurketa hunkigarria eta goxoa suertatzen da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Irakasleak, ahots gora, kapituluka kontatzeko aproposa. Tertulia literario bat burutu daiteke ere: gaiaz (zahartzaroaz, bakardadeaz, naturaz), pertsonaiez hitz eginaz, metafikzioaz (istorioak istorien barruan)...



## ATÂRIA

Idazlea: Yolanda Arrieta

Denonartean, 2019

ISBN: 978-84-16791-98-9

364 orrialde

Narrazioa

Institutu bereko lau gazteri, leku zehatz batera joateko gonbidapen misterioitsu bana iritsiko zaie. Leku hartara bertaratzen direnean, etorkizun hurbilera bidaiatzeko aukera izango dutela deskubrituko dute. Etorkizunean, euren dohain bereziaz baliatu beharko dira. Haien helburua, geroa salbatzeko oraina aldatzea izango ote da?

Distopia baten barruan utopia bat planteatzen duen zientzia fikziozko eleberria dugu. Hiru zatitan banatua dago: oraina, etorkizunera saltoa eta itzulera. Kapitulu laburretan, lau gazteren dohain eta gatazkak ezagutu, etorkizun katastrofiko bat irudikatu eta hainbat arazo hipotetikoren inguruan pentsaraziko dugu. Hitzartzean argituko da dena. Baina, bitartean, irakurle gaztetxoek intriga eta tentsio handiz irakurri ahal izango dute, luzea izan arren, arina suertatzen den kontakizuna. Finean, oso gertukoa egingo zaion gai eta gertakariz beteriko etorkizunean pentsatu beharko du irakurleak berak ere, amaieran galdera bakar bat buruan geratuko zaiolarik: Zerk merezi du irautea?

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Irakasleak kontaktzeko edo bakarka irakurtzeko liburu aproposa. Distopiak planteatzen dituzten bestelako narratiba moldeei erreparatu daiteke (eleberririk, serieak, filmak...): zertan datza genero horrek? Booktrailerra egiteko ere aproposa.



**BUYAN. HERIOTZAREN UHARTEA**  
Idazleak: Xabier Etxeberria eta  
Martin Etxeberria  
Ilustratzailea: Aritz Trueba  
Turco Comics, 2019  
ISBN: 978-84-09-12513-5  
127 orrialde

Mongoliar Inperioaren inbasio eta Gurutzaden artean, Batu Khanen urrezko Horda eta Zaldun Teutoniarrak armak zorrotzen eta hiriak kiskaltzen dabiltza. Bogatyr zaldunak gutxiegi dira, antzinako jainkoen izenean, etsaiei aurre egiteko. Beraz, herritar xume guztiak ihesean doaz itxaropena galduta. Maansi eta Noho zakurra dira kontrako norantzan, Buyan Hildakoen Uharte mitikorantz abiatuko diren bakarrak, gerlari krudelei, erlijio-fanatikoiei eta antzinako izpirituei aurre eginaz.

1241. urtean kokatuta, balio historiko handia duen komiki fantastikoa. Gerrak, kultura ezberdinak, izaki mitologikoak eta gazte baten bidaia inziatikoa dira istorioaren ardatz. Ilustrazioak, esandakoari bat eginik, errealismo handikoak dira, garai historikoan kokatzen gaituzte eta detaile txikienak ere badu zeresana. Beste garai edota mundu batean, bete betean, kokatuko gaituen komikia da Buyan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ikasleek komiki-gintza lantzeko aitzakia (<https://komikeri.wordpress.com/>) (<http://www.komikipedia.eus/index.php?title=Azala>). Filosofia/etika edo historiako materiala bilakatu daiteke. Tertulia literario batean, irudiaz, egituraz eta pertsonaiez hitz egiteaz gain, gaiak mintzatu daiteke: heriotza eta bizitza, gerra, Erdi Aroa, erlijioa... Booktrailerra ere egin daiteke.



## CORALINE

Idazlea: Neil Gaiman

Ilustratzailea: Dave McKean

Itzultzailea: Julen Gabiria

Elkar, 2019

ISBN: 978-84-9027-898-7

180 orrialde

Narrazioa

Etxe berrira iritsi dira Coraline eta bere gurasoak. Azken hauek lanpetuegi daudenez, Coralinek etxeko hamalau ateak zabaltzeari ekingo dio. Ateetako bat, ordea, estalia dago, baina, zeharkatzea lortutakoan, zerbait harrigarria aurkituko du. Beste aldean, bere etxe, guraso eta jostailu ia berberak daude. Ezberdintasun bakarra, gutzia hobea dirudiela eta gurasoek begien lekuan botoiak ditzutela. Harrigarria dena, beldurgarri bilakatzen joango da: arraro jokatzen duten gurasoak, tranpan eroritako haurrak ispiluen atzean, botoiak... Coralinek haren egiazko bizitza errekuperatzeari ekin beharko dio fantasia eta beldurrezko eleberri honetan.

Maitagarrien ipuinen kutsu eta ezaugarriak dituen eta beldurrezko istorio bateko suspense eta misterioa duen eleberria da. Gaizkileen kontrako heroia, magia, edota errealitatearen alterazioa dira ezaugarrietako batzuk. Itzultzerakoan, jatorrizko idazketa sinple eta zuzena mantendu bada ere, balio literarioa duen hizketa landua azpimarratu daiteke istorio makur bat jasotzen duen eleberri anbiguo honetan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ikasleek euren kabuz edo irakasleak ahots gora irakurri dezake. Istorioarekin egin diren moldaketa ezberdinak ezagutu eta alderatu daitezke (P. Craig Russell-en nobela grafikoa, Henry Selick-en filma...). Idazketa tailerra eginez, beldurrezko eta fantasiazko narrazio laburrak sortu.



## ERREBELDE 50 BIDER

Idazlea: María Orcasitas-Vicandi eta  
Andrea Perales

Ilustratzailea: Ángela García Mardones  
Erein, 2019

ISBN: 978-84-9109-351-0

116 orrialde

Dibulgazio liburua

lkerlariak, kirolariak, artistak, politikariak, pentsalariak... 50 emakume, 50 istorio eta 50 borroka topatu daitezke dibulgaziozko liburu honetan. Geure komunitatean bizi eta jardun diren emakume langile, borrokalari eta errebelderen istorio bilduma da honakoa. Norbanako eta kolektibo bezala burutu dituzten ibilbide eta lorpenak jaso dira, guztien inguruko biografia laburra eta beste hainbat datu interesgarri eskainiaz. Gainera, orriz orri, 50 ilustrazio ezberdin ere agertzen dira, guztiak autore berberak eginak izanda ere, estilo eta teknika ezberdinez gauzatuak (collage, akuarela, digitalak...) emakume eta istorio bakoitzari identitate ezberdin bat eskainiaz. Beraz, isilduak edota ezikusiak izan diren istorio asko azaleratzen dira, gizarteak zaildu dien lekua konkistatu duten emakumeen ahots errebeldeak tokia hartu dute liburuan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Erakusketa bat presatu daiteke liburuko informazioaz baliatuaz: haien lanak ikusgarri eginaz, material berriarekin... Interesgarria litzake, liburuan agertzen diren emakumeetako bat edo beste eskolara gonbidatzea. Bestalde, ilustratzeko teknika ezberdinak esploratu daitezke, liburuan bezala.



GURE OROITZAPENAK,  
POEMA MUSIKATUAK  
Idazlea: Joseba Sarrionandia  
Elkar, 2018  
ISBN: 978-84-9027-837-6  
132 orrialde  
Poesia liburua

Joseba Sarrionandiaren literatura unibertsoa biltzen da disko-liburu honetan. Batetik, 32 kantuz osatutako cd bikoitza dugu, eta bestetik, olerki-liburu bat.


Kantuei dagokienez, Sarrionandiaren testu eta iruditeria erreferentziatzat hartuta, belaunaldi ezberdinetako artistek sorturiko lanak bildu dira: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Ken Zazpi, Fermin Muguruza, Anari, Audience, Zea Mays, Rafa Rueda, Amorante, Mursego...

Liburuari dagokionez, Gure Oroitzapenak filma osatzen duten 12 film laburren oinarrian dauden ipuin eta poemak biltzen dira bertan. Horrez gain, Sarrionandiak berak, testu hauen inguruan egindako iruzkinak jaso dira. Guzti hau, Maite Mutuberriaren ilustrazio iradokitzailez josia.

Argi dago, Sarrionandiaren lanek arrastoa utzi eta beste sortzaile askoren lanen inspirazio iturri izaten amaitu dutela. Estilo eta estetika oso ezberdinak biltzen dituen lan kolektibo hau, guzti horren isla da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Kantuak oso iradokitzaileak izanik, adierazpen plastikoa landuz, poemei ilustrazioak sortu dakieke, edota adierazpen narratiboa landuz, ipuin laburrak sortu. Era berean, Gure oroitzapenak, izen bereko filma ikusi daiteke eta Sarrionandiaren unibertsoa bertan islatua ikusi.





## HASIERA BERRI BAT

Idazlea: Gwénola Morizur

Ilustratzailea: Marie Duvoisin

Itzultzailea: Miel A. Elustondo

Harriet Ediciones, 2018

ISBN: 978-84-947646-9-1


72 orrialde

Komikia

Lily haurdun dago, baina ez du astirik izan inori kontatzeko. Jakin duen egun berean, haren bikotekidea musika-taldearekin biran aterra da eta honen iloba, Kanadatik bakarrik datorren Baltasar txikia zaindu dezan eskatu dio. Sekula elkar ikusi ez dutenez, Lilyri ez zaio erraza izango, hortaz, bidaian ateratzea proposatuko dio txikiari. Bidean, Jimmy gazte misteriotsua batuko zaie, eta Pierrot artzainaren mendiko etxean amaituko dute. Elkarren artean horren ezberdinak diren pertsonaia guzti hauek, bizipen eta emozio asko izango dituzte elkarrekin partekatuzko.

Gai pertsonal eta sentimentalagoak ukitzera jotzen duen komikia da. Bakardadea, zalantzak, beldurrak... haiengandik ihesi egingo dute protagonistek, eta ihes-bide horretan, elkarrekin, topatuko dute irtenbidea. Guztia, irudi oso errealista eta erabat adierazkorren bitartez. Hitzen beharrik gabe, pertsonaia hauen burutik pasatzen dena antzeman daiteke. Binetaz bineta antzemango dugu geure protagonista taldearen bilakaera.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Genero ezberdineko komikira hurbiltzeko aproposa eta pertsonaia bakoitzaren bilakaera aztertzeko parada egin dezakegu. Komikia aztertzeko, eta komigintza lantzeko aitzakia ere bada (<https://komikeri.wordpress.com/>) (<http://www.komikipedia.eus/index.php?title=Azala>).



**HARI SINGLE BAT**  
Idazlea: Idoia Garzes  
Ilustratzailea: Leire Urbeltz  
Erein, 2019  
ISBN: 978-84-9109-456-2  
144 orrialde  
Narrazio laburra

Arrako izeneko neskatila amonaren baserrian da. Bertako mandioan, kutxa zahar bat ireki eta ardatz bat aurkituko du. Ardatza zertarako balio duen jakin nahian, amari galdezka hasi eta belaunaldiz belaunaldi gertatu den familiako eta herri bateko historiarekin egingo du topo: gerra zibilaren garaian bere familiako emakumeen isildutako historia. Ardatzaren laguntzaz, iragana iruten hasi eta oraina ulertzen hasiko da Arrako.

Nor garen jakiteko, nondik gatozen jakin behar omen da, eta horixe da 2018ko Lizardi Saria jaso duen liburu honen premisa nagusia. Idazketa arina eta zuzena darabilenez, oso irakurterraza suertatzen da. Irakurlea erraz geratuko da istorioan etendako haria harrapatzeko irrikitan. Euskarazko lehen testu liburuetan Txiki marrazkilariak eginikoen estiloa dirudien horretan, ilustrazio bizi eta markatuetan ere iraganeko erreferentzietara jotzen dela dirudi. Fiktion, historian atzera, zein aurrera begiratzeko liburua.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Iklasleek bakarka, edota irakasleak, kapituluka irakurri dezake. Irakurketa interesgarria bihurtzen da gerra zibila eta gerraostea lantzerakoan, batez ere garaiko emakumearen paperaz hausnartzeko. Norbere familiaren memoria historikoan arakatzuz, testigantzak bildu genitzake.



LEO, SABANAKO ERREGE  
 Idazlea: Mikel gurrutxaga  
 Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga  
 Elkar, 2019  
 ISBN: 978-84-9027-948-9  
 48 orrialde  
 Album ilustratua


Telebistan sabanako erregeari buruzko dokumental bat ematen ari dira eta telebistako hotsak etxean barrena zabaltzen dira. Leo, etxe-ko katua, etxean barrena dabil, sabanako errege hura balitz bezala. Baina, sabanan nola, etxean ere, erregearen erregetza titulua zailtzan jarriko duten arriskuak agertuko dira.

Zer gertatzen da boterea galtzeko arriskua ematen denean? Intriga, tentsio eta nahasmen handiko album honetan boterea dugu hizketagai. Istorio soila da, baina hots narratibo ezberdinen nahasketak aberastu egiten du irakurketa. Hots bat sabanan dago, testuan, eta bestea etxean, irudietan. Azken hauek, Leongan fokua jartzera eramaten gaituzte, hari jarraitzen diogu etxean barrena. Eta bestetik, etxe hartako offeko ahotsak eskaintzen zaizkio irakurleari, berak konparaketa eta metaforak eginaz, istorio bat eraiki dezan. Irudia eta testua, ezinbestean, elkartuz, Leo sabanako errege bihurtzen dugu.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Album ilustratua, genero gisa ezagutzeko abiapuntu on bat da, testu eta irudi erabat osagarriak baititu. Tertulia literario bat ere burutu daiteke, irudia eta testua ongi aztertuz. Eta, booktrailer bat ere egin liteke.

## MIGRANTS

per Issa Watanabe



## MIGRANTS

Egilea: Issa Watanabe

Ilustratzailea: Issa Watanabe

Libros del zorro rojo, 2019

ISBN: 978-84-949904-5-8


38 orrialde

Album ilustratua

Manta, beroki eta zenbait poltsa soinean daramatela, animalia talde batek bidaia lazgarri bati ekingo dio. Lehoia, errinozerontea, ahatea, flamenkoa... ez da bat bera ere libratzen. Guztiak, pausu geldoz, baso iluna eta beste hainbat gauza atzean utzita, mugak zeharkatuz, ihesean dabilta: gosea eta gerrak behartuta egindako migrazio baten istorioa da.

Oihuka ari zaigun album mutu bat da honakoa. Hondo beltz ikaragarrian, kolorez eta bizitzaz jantzitako animalia antropomorfoak ageri zaizkigu, emigrazio bateko ohiko egoerak irudikatuz, oinezkoak, naufragoak, begirada hutsak, pauso geldoak... tamalez ohi-koak diren eszenak deskribatzen dira, besterik gabe. Ezer kontatu gabe, dena dago kontatua. Animalien artean, heriotza eta esperantza ere bilakatuko dira protagonista, irudi harrigarri eta hunkigarriak sortuz. Izan ere, liburu honek ezer esan gabe, soilik egunerokoa erakutsiz, egoera lazgarri bat salatu, irakurlea kontzientziatu eta hunkitu egingo du. Gaztelaniaz, zein katalanez argitaratu da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Solasaldi filosofiko-literarioa egin daiteke, bereziki, heriotza eta esperantzaren inguruan eraikitako sinbologia aztertuz. Liburuak, beste liburu eta autore batzuen erreferentziatara ere jotzen du, Emigrantes (Shaun Tan) eta El Pato y la Muerte. Hauek gelaratzeko eta erreferentzia literarioak lantzeko aproposa. Azkenik, ahozkotasuna, gaitasun narraitiboa eta sormena martxan jarri nahiz gero, hitzak ipini istorioei.



## SHAN ETA SHEN EDO BIDEAN IKASIA

Idazlea: Xabier Olosa

Ilustratzailea: Ima Mendiola

Ibaizabal, 2019

ISBN: 978-84-9106-794-8


112 orrialde

Narrazio laburra

Shan Tibeteko monastegi budista bateko maisu jakintsua da. Gau batean, monastegiko ateetan Shen izeneko hamabi urteko mutiko umezurtz bat azalduko da. Handik aurrera, Shan eta Shenek Argiaren Bidea erakutsiko digute 12 kapitulu edo hitzorduetan. Shen gazteak kezka asko ditu eta Shanek irakaspen asko. Agureak ipuin edo kondairen bitarteez bizi lezio asko eta jakinduria handia eskainiko dizkio gazteari, eta hala bidaiatuko du irakurleak ere jakinduriaren Bidean zehar.

Bizitzari buruzko irakaspen handiez beterik dator espiritualki hezi eta ekialdeko kulturara gerturatuko gaituen eleberri hau. Agure eta gaztearen arteko elkarrizketak, transmisioa eta kondairak dira elementu nagusiak. Xabier Olosoren hizkera poetiko, literario eta zainduak kontakizun eder bat eskaintzen digu eta irakurketa mantso bat egiteko proposamena luzatzen du. Egitura errepikakorra, atal independenteak, pentsalarien aipuak... Hau pentsatzeko liburu bat da, ibiliaz eta ez korrika igaro beharreko bidaia bat eskaintzen diguna, bidea baita beti garrantzitsuena.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Irakasleak, ahots gora, kapituluka irakurtzeko liburu proposa da. Irakurri ahala, tertulia laburrak egin daitezke: kondairei buruz, lezio edo gaiari buruz, errekurtsio literarioetan arreta jarritz... Ekialdeko eta beste kulturak ezagutzeko, edo herri literaturan sakontzeko parada ere hartu daiteke.



## EGUNERO HASTEN DELAKO

Idazlea: Ramon Saizarbitoria

Erein, 2019

ISBN: 978-84-9109-459-3

184 orrialde

Narrazio liburua

Gisèle haurdun dago eta trenean Riemmes hirirantz doa abortatzera. Tren bidaia hori ez da erraza izango, tartean arazo ekonomikoak, engainuak, sexu indarkeria eta bakardadeari aurre egin beharko die, besteak beste. Gainera, Psikologiako irakaslearekin edota haurdun utzi duen Mauricerekin bizitutako oroitzapen lazgarriak dakartza gogora. Zorionez, Marta, bere laguna agertuko zaio bidean eta biak batera oztopo guztiei aurre egiten saiatuko dira. Guzti hau, Berritsu izenez ezagutuko dugun pertsonaia misterioitsu eta ezezagun baten elkarrizketekin nahastuko zaigu. Bera izango dugu istorioaren narratzaile, behatzaile eta kontalari ezkutua.

Euskal eleberri modernoaren mugarrietako bat da klasiko hau, garaian eskaini zuen gai pertsonal zein sozialen trataeragatik eta kontaketa estilo berritzaileagatik ere. Abortua, bortxa, harreman sexu-afektiboen gaiak, gaurkotasun handia izaten jarraitzen dutenak. Eta, flashback-ak, askotariko narratzaileak, elipsiak... balio literario askoren arteko konbinaketa landuak bihurtzen du obra hau klasiko.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Bakarka irakurria, zein irakasleak ahots gora irakurria izan daiteke. Ondoren edo bitartean, tertulia literarioan aipatu daitezkeenak: gaiak (abortua, sexu baimena...), estiloa, egitura... Interesgarria izango litzake abortuaren kronologia historia arakatzea, informatzea...



## ERAKUSLEIHOAN

Idazlea: Karmele Mitxelena

Ilustratzailea: Irrimarra

Ibaizabal, 2019

ISBN: 978-84-9109-500-2


32 orrialde

Album ilustratua

«Carolak beti esaten zuen kale izkinan gorputza saltzen ez dakienak, arima saltzen jakin behar duela» dio album ilustratu honetako protagonistak. Bera, portuan saxofoia jotzen bitzta irabazten duen gizonzkoa da, baina haren amak ez daki, lotsa emango lioke semea xoxa batzuen truke kale gorrian lan egiten duen gizon behartsua bilakatu dela jakiteak. Ama beti izan du horrelakoa, eta orain haren begirada ikusten du ispiluan begiratzen den bakoitzean.

2019ko Peru Abarka album lehiaketako saria irabazi du, erakusleio sozialez hitz egiten duen liburu honek. Hirietako kaleetan erakusleio asko topatu daitezke: arropaz beteak, itxurakeriaz beteak edota muturrekoa ematen diguten egiazko istorioz beteak. Hizkera jaso, poetiko eta metaforikoan mintzatzen zaigu kontakizuneko artista, hunkigarria suertatzen den errealitatearen deskribapen labur honetan. Eta kolorez eta testura ezberdinez beteriko ilustrazio bignun eta adierazgarriek bihotza ukituko digute erabat iradokitzaileak diren irudiak sortuz. Poetikaz betetako errealitate gordinaren erakusleioa paratzen zaigu album ilustratu hau zabaltzerakoan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ikasleei ahots gora kontatzeko eta euren eskuetan uzteko album aproposa. Tertulia literario baten bitartez, liburu honetako sinbologia azalera genezake (zer dira erakusleioak?) , pertsonaiak aztertu, irudiek zer esaten diguten...



## ETXEAN BARRENA

Idazlea: Gustavo Puerta

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Denonartea, 2019

ISBN: 978-84-17940-00-3

42 orrialde

Album ilustratua

Zazpi kideko familia baten etxean barrena murgilduko gara, eta egoera ezberdinek haiengan eragindako sentimenduak zeintzuk diren ezagutuko ditugu. Beldurra, plazera, maitasuna, errua... batzuetan sentimenduak ezin dira hitzetan jarri, baina jarri daitezke pertsonengan. Honela, pertsonaiengandik abiatuta, sentimenduen arteko aldeaz, sentitzeko era ezberdinez eta sentitzeaz hausnartuko dugu. Orrien behaldean, testua doa, sentimenduen inguruko zenbait datu eta galdera eskainiaz; eta orrien goialdean, ilustrazioa doa, bineta modukoetan banatutako etxea, auka baten antzera. Bi aldeak bananduta, era independentean mugitu daitezke. Beraz, ezaugarri guzti hauek, liburu aske bat eskaintzen digute. Kasu honetan, testuak ez du irudia definitzen, askeago egin baizik. Finean, beti gabiltza sentimenduak definitu eta mugatu nahian, baina posible al da? Liburu honetan zalantzan jarriko dugu. Pentsatzeko eta filosofatzeko liburua da eta irakurleari eskaintzen zaio bere istorio propioa(k) eraikitzeo aukera.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Norberak pertsonaia ezberdinen istorio ezkuak eraiki ditzake. Ondoren elkarrekin partekatu eta istorio horiek elkarri kontatu daitezke, ahozkotatuta landuaz. Istoriok betetako album filosofikoa izanik, literatura, nahiz filosofia saioetan, oso erabilgarria.





## FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

Idazlea: Zenbait egile

Ilustratzailea: Hiru Damatxo

Susa literatura, 2019

ISBN: 978-84-17051-39-6

136 orrialde

Antzerkia

Ospitale bateko itxarongelan, Iñaki, hamar urte eta leuzemia dituen haurra, eta Joxan, berrogeita sei urte eta gerra zibileko obus baten txatala buruan inkrustatua duen gizona, elkartuko dira. Hortik abiatuta, oraina eta iragana nahasten hasiko dira. Migel eta Kristian medikuen ametsak, gerra garaian isildutako eta hildakoen hotsak, Carmen Martinez-Bordiu bihotzezko aldikarien portadetan... Herri oso baten iraganeke zauriak orainean sendatuak al daude?

Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain antzerki taldeek Unai Iturriaga eta Igor Elorzarekin batera idatzi zuten obra eszenikoa jasotzen da liburuan. Justuki, lan honetan, iragana azalerratu, memoria herrikoia bildu eta oholtzara eramatea bilatu zuten. Ezinbestean, guzti horrek orainaldia eta geure euskal komunitateaz hausnartzen jartzen gaituelarik. Teatroa erritua izanik, katarsia eragitea eta geure gaitzak sendatzea planteatzen du antzezlan honek.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ikasleek euren kabuz irakurtzeko antzezlan aproposa. Ondoren, gelan obraren antzezpena ikusi daiteke (link honetan topatzen da: <https://www.youtube.com/watch?v=9jaj5oWFi-o>). Historiako saioetan, gerra zibila lantzerakoan material aproposa suertatzen da, gertakizunen ondorioez jabetzeko, hausnartzeko... Tertulia batean amaitu daiteke: idatziaren eta eszenara eramandakoaren arteko konparaketak, irudi bisual eta idatzizkoak, gaiak...



## MIREN ETA ERROMANTIZISMOA

Idazlea: Ramon Saizarbitoria

Erein, 2019

ISBN: 978-84-9109-505-7

245 orrialde

Narrazio liburua

Mirenek, eleberriko 17 urteko protagonistak, Said du gustuko, institutura iritsi berri den mutil marokoar, guapo eta atsegina. Baina, Klara, haren lagunak, aurrea hartu eta Saidekin irteten hasiko da. Bikotearen harremana gertutik biziko du Mirenek, eta aurre egingo dio ikusten duenari. Mirenek ez du maitasuna sakrifizio eta sufri-menduarekin lotzen eta maitatzeko beste era bat aldarrikatuko du.

Maitasun istorio bat da eleberraren ardatza, baina maitasuna eta erromantizismoari buruz hausnartzen jarriko gaituen bezala, Miren bezalako gazte baten bizitza zipriztintzen duten beste hainbat gai ere agertuko dira: aurreiritziak, arrazismoa, terrorismoa, genero indarkeria, harreman sexu-afektiboak... nerabegarotik helduarorako bidea egiten dabilenaren ardura, erabaki hartze eta pentsaerak aurrez aurre irakurri ahal izango dira, Mirenen ahotik. Hizkera zaindu eta jasoan idatzitako eleberria bada ere, gertukoa eta irakurte-razza suertatzen da.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Ikasleak euren kabuz irakurtzeko liburu aproposa, baina, irakurri ahala ikasgelan partekatze edo tertulia saioak egin daitezke: gaiez hausnartzeko, pertsonaiaren bilakaeran arreta jartzeko, baita bildungsroman literatur generoan kokatzen diren obrak ezagutzeko.



## SASIESKOLA

Idazlea: Garbiñe Ubeda

Elkar, 2018

ISBN: 978-84-9027-854-3

100 orrialde

Bilduma

Euskal Herriko 80. hamarkadan, Larraitz institutuan dabilen neska gazte bat da. Egun batez, institutuan piper egin eta gustuko duen mutilarekin mendi alderantz joko du. Ezustean, ordea, haren bizitza hankaz gora jarriko duen gertakari lazgarri baten testigu izaten amaituko du.

Lehen maitasuna, borroka politikoa, traizioa, indarkeria, ardurak... Larraitzek guzti horrekin borrokan dabilen horretan, sasieskolan ikasten eta hazten ikusiko dugu. 80. Hamarkadako neska gazte baten begiradatik ezagutuko dugu iragan hurbila, guraso direnen nerabezaroa, uste baina gertukoagoa egingo zaiguna. Larraitzek erakusten duen bezala, haurtzaroa utzi eta heldu izaten ikastea, guztiok egin dugun edo egin behar dugun bidaia bat delako. Horregatik ere, istorioa, kapitulu laburretan banatua, gertukoa, argia eta irakurterraza suertatzen da. Eta era berean, istorioak berak gordetzen duen gertaera misterioitsuak, tentsio eta intriga handia sortzen dute. Larraitzen bidaia hori, Lekukoa Bildumako liburuetan ezagutuko dugu, istorioak jarraipena baitu Mehatxua liburuan.

**Bitartekariaren esku-hartze proposamena:** Irakurri bitartean, partekatze saioak antolatu daitezke: elkarri irakurketara kitzikatzeko, ohartutakoaz mintzatzeko, hipotesiak formulatzeko... Jolastu: zer egingo zenuten protagonistaren lekuan? Idatzi zuen amaieraren bertsioa. Booktrailerra ere egin daiteke.



## MARIA GOIKOAK BATBIHIRULAU!

+ APP

Idazlea: Anjel Lertxundi

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Alberdania-Erein-Igela, 2011

BILDUMA: Klis-Klasikoak

ISBN: 978-84-9383-687-0

192 orrialde

Euskarazko haur literaturako liburu klasiko honek poemak, hizkuntza jolasak, antzerkitxoak, ipuinak, abestiak eta antzeko testu ak biltzen ditu. Testu bakoitza indar handiko irudiekin ilustratuta dago. Irudiak erakargarriak dira, egin ziren garairako erabat berritzaileak, eta testuekin erlazioan daudelarik, elkar aberasten dute.

Argitalpen honen jatorrizko edizioa 1984-86koa da. Bere balio nagusia jolasa eta hizkuntza lotzea da. Lau liburuxketan banatutako argitalpena da: “Bat, aiba la mar salada”, “Bi, auskalo mendian”, “Hiru, titiritero Titirimundi” eta “Lau, eleganzia frantzia”. Lau liburuxka horiek liburu bakarrean berrargitaratu ziren 2011n Galtzagorri Elkartearen Klis-klasikoak bildumaren barruan.

2014an, Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin, eta Oreka Interactive enpresarekin elkarlanean, XXI. mendeko euskarrietara ekarri zuen euskarazko haur literaturako klasiko hau, “Maria Goikoak batbirulau! App”a sortuz, eta modu honetan Klis-klasikoak app bilduma abiaraziz.

Argitalpen horren berezko izaera jostariari eutsiz, jolaserako proposamen berriak eta errealitate areagotuan birsortutako irudiak

biltzen ditu app honek: puzzleak, memoria-jokoak, hitz-jokoak, 7 desberdintasunak bilatzeko jokoak, abestiak, 2.5D efektuko irudiak, eta bestelako hainbat joko.

Irakurzaletasuna sustatzen jarraitzeko beste bide batzuk saiatzea izan zen app honen sorreraren helburua: Papera eta teknologia berriak uztartzea, tradizioa eta modernitatea batzea, eta literaturaz eta aisialdiaz euskaraz eta euskarri teknologiko desberdinen bidez gozatzeko aukera berri bat eskaintzea. Erabili ahal izateko komenigarria da paperezko liburua esku artean izatea. Horrela, papera eta jatorrizko obra dira egungo teknologia berrien munduan murgiltzeko giltza nagusia. Izan ere, app-ak eskaintzen dituen zenbait jolasekin gozatzeko eta liburuko hainbat orrialde errealitate areagotuan ikusi ahal izateko, beharrezkoa da paperezko liburua esku artean izatea.

Androidetarako eta iphone/ipad-etarako bertsioan dohainik eskuratu daitezke bakoitzari dagokion saltoki birtualean, ordenagailuaren bidez ere erabili daitezke. [www.galtzagorri.eus](http://www.galtzagorri.eus) web gunean dago ordenagailurako aplikazioa. Aplikazioa martxan jarri aurretik, automatikoki Unity programa deskargatzen da, eta berau exekutatzean izango da erabilgarri aplikazioa.

Ordenagailuan erreproduzitu ezin den bakarra Beste dimentsio bat ataleko errealitate areagotua da.

“Maria Goikoak batbirulau!” haurrek euren kasa nahiz helduen laguntzarekin irakurtzeko liburua denez, aplikazioa ere haurrek (4 eta 8 urte bitartekoentzat dago gomendatua) eta helduek bakarka nahiz elkarrekin erabiltzeko modukoa da; oso intuitiboa eta erabilgarria da, eta laguntza pantailak ere baditu. Hortaz, abiapuntua Haur eta Gazte Literatura izan arren, publiko orokorrari zuzendutako aplikazioa da. Izan ere, liburuen irakurketa konpainian egin daitezkeen bezala, aplikazioak eskaintzen dituen jolas gehienak ere konpainian nahiz bakarka gozatzekoak dira.



## TXAN FANTASMA + APP

Idazlea: Mariasun Landa  
 Ilustratzailea: Jon Zabaleta  
 Elkar, 2011  
 BILDUMA: Klis-Klasikoak  
 ISBN: 978-84-15337-46-1  
 63 orrialde

Mariasun Landak Zarauzko udalak antolatzen duen Lizardi saria irabazi zuen obra honekin, 1982an. Bere bibliografia zabalaren lehen argitalpena ez bazuen ere, idazlan honen bidez hartu zuen bere lekua Landak euskal letretan, garai hartan kalitate handiko obratzat jo zena eta idazlea aintzat hartzeko egileen zerrendara igo zuena.

Euskal haur literaturaren mugarri gertatu da liburu hau. Idazkera garden eta irakurketa erraz baten jantziarekin, Zabaletaren ilustrazio jostari eta herabearekin, Mariasun Landak haurren munduaren deskribaketa ezohikoa eskaintzen digu bertan. Gutxitan ez bezala hurrek arazoak eduki ditzaketela –badituztela– esaten zaigu, dramatismoarekin gabe, egoera behartu gabe, baina errealismo dosi nahikoarekin irakurleak jakin dezan zertaz ari den. Hala, bakardadea eta kariño falta sufritzen dituen haur bat ezagutzeko aukera dugu: Karmentxu, Txan Fantasmaren lagun bakarra.

Liburu hau 2011n berrargitaratu zen Galtzagorri Elkartearen Klis-klasikoak liburu bildumaren barruan. Eta bost urte geroago, 2016an, liburua multiplataforma erako aplikaziora ekarri zuen Galtzagorri, “Txan Fantasma app”a osatuz Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin eta Oreka Interactive enpresarekin elkarlanean. Klis-klasikoak bildumako bi-

garren app-a da hau beraz, lehenengoa “Maria Goikoak Batbirulau! App”a izan baitzen.

“Txan fantasma” 8-10 urteko hurrek irakurtzeko liburua denez, aplikazioa ere 8-12 urte (txikiagoek zenbait joko erabil ditzakete, beste batzuk nekez) bitarteko hurrek bakarka nahiz lagunekin edo senideekin erabiltzeko modukoa da; oso intuitiboa eta erabilgarria da, eta laguntza pantailak ere baditu.

Jolaserako proposamen desberdinak eta nazioartean adin horietan arrakasta duten hainbat jolas-mota eskaintzen ditu “Txan fantasma app”ak. Liburuaren irakurketaz gozatzeko ez ezik, jolaserako lagungarri izango da gehienetan. Hortaz, irakurketa eta ulermena lantzeko tresna ludiko erabilgarria suertatuko da maiz. Izan ere, aplikazio honek ipuineko pasarteak edo ilustrazioak oinarri dituen joko asko eskaintzen ditu.

Multiplataforma erako aplikazioetan egin daitezkeen proposamenik berritzaileenak eta duinenak biltzen ditu app honek, jatorrizko tesuaren eta irudien garrantzia indartuz:

-Paperaren 2 dimentsioetatik pantailaren 3 dimentsioetara egiten du jauzi.

-Txanmagotxia: maskota birtual bat da. Txan fantasmarekin esku-jolasak burutu, kantatu, jolastu... egin dezakegu, baita jaten eman ala garbitu.

-Jolasak: kantuak, puzzleak, jolas herrikoiak (gordeketan, harrapaketan...), ipuineko pasarteekin lotutako asmakizunak eta antzerakoak topatuko ditugu. Ohiko jolas digitalen egokitzapenak dira, Txan fantasma eta Karmentxuren munduan barneratzeko eginak.

-Sormen jolasak: Sormena eta ahozketasuna lantzeko jolasak ere aurki daitezke app honetan. Esaterako, ipuinari amaiera berria sortzeko jolasa dugu.

Androidetarako eta iphone/ipad-etarako bertsioan dohainik eskura daiteke bakoitzari dagokion saltoki birtualean, ordenagailuaren bidez ere erabil daiteke. [www.galtzagorri.eus](http://www.galtzagorri.eus) web gunean dago ordenagailurako aplikazioa. Aplikazioa martxan jarri aurretik, automatikoki Unity programa deskargatzen da, eta berau exekutatzeari izango da erabilgarri aplikazioa.





## AMATTOREN UZTA + APP

Idazlea: Mayi Ariztia

Moldatzailea: Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Alberdania-Erein-Igela, 2012

ISBN: 978-84-9746-781-0

87 orrialde

“Amattoren uzta” Mayi Ariztiak entzun, bildu, jaso eta idatzitako ipuin herrikoien bilduma da, 1934an lehen aldiz argitara eman zena eta 2012an berrargitaratu zena Galtzagorri elkarteak sortutako Klis-klasikoak bilduman. Edizio honetan Patxi Zubizarretak bilduma hura birmoldatu eta eguneratu egin du. Liburuak dituen hamasei irudietan, Maite Gurrutxa ilustratzaileak landa giroko iruditeria ohi-koari ikusmolde berri bat erantsi dio, klasikoa bezain berritzailea.

“Amattoren uzta app”an liburuan biltzen diren ipuin tradizio-naletan oinarritutako 5 transmedia kontakizun eta jolas sortu ditu Galtzagorri elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Orona Fundazioaren eta Erein argitaletxearen laguntzarekin. Beldurrezko abentura grafiko bihurtu du “Itsasuar baten istorioa”; abentura grafikoa sortu du “Hartz-kumeren istorioa”rekin; 360 graduko esperientzia diseinatu du “Gameluaren istorioa” oinarri hartuz; guda desafio jolasa asmatu du “Ama-alaba batzuen istorio”tik abiatuz; eta ipuin interaktiboa “Arttoren istorioa”n oinarrituta. Guztia gainera berariaz sortutako musikaz lagundurik.

**Bitartekariaren esku hartze proposamena:** liburua irakurri (ozen, kapituluka gelan bertan...) eta aplikazioa deskargatu jolas egin dezaten.























**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Galtzagorri  
elkartea